

ETXEKO JARDUEREZ GOZATZEN

Oporraldi honetarako, **TONUCCI** https://eu.wikipedia.org/wiki/Francesco_Tonucci adituaren aholkuak gureak eginez, etxeko egunerokotasunak dituen jarduera aberatsaz baliatzea animatzen zaituztegu:

1. **Labadora** jarri gurasoen laguntzaz. Arropa iseki. Lehortutakoan jaso. Ausartzen denak ere plantxa erabiltzeko ahalegina egin dezake. Jantziak tolestatu eta armairuan jasota utzi.
2. **Etxeko argindarraren sistema** eta egiten duen bidea elkarrekin ikusi.
3. **Ura eta gasaren ibilbidea** gertutik ezagutu.
4. **Botoiak lotzen** ikasi, lokarriak lotzen ikasi.
5. **Aspiragailua** eta erratza erabili, hautsak kendu, kristalak garbitu, ontziak garbitu arraskan.
6. **Jostunak bezala** botoiak eta traputxoak josten aritu. Panpin bat osatu josiz eta barrukoa betez.
7. **Norberaren jostailuak eraiki**: zer izan daiteke gustuko?
8. **Sukaldea zientzia tailerra**: materia desberdinen eraldaketak esperimentatu, egosiz, frejituz, gozagarriak erantsiz, zapore desberdinak dastatuz. Janari goxo, betikoak, tradizionalak, arraro eta bereziak prestatu. Errezetak idatzi eta gela kideei proposatu liburuxka bat osatuz, argazkiak eta testuak jarritz.
9. **Norberaren historiaren albuma**: gurasoen laguntzaz argazkiak aukeratu albuma osatuz edo power pointa erabiliz.
10. **Egunkaria irakurri elkarrekin**: artikulu interesgarriak bilatu, beste herrialde batekoak aukeratu, zerbait bitxia aurkitu. Norbaiti kontatu eta bilduta utzi koaderno batean itsatsiz.
11. **Egunero hurrei ozenki irakurri**: etxean duzuen liburu bat aukeratu. Egunero tarte bat hartu, ordu erdi bat, leku eta garai berdinean, liburua zatika irakurtzeko guztia osatu arte. Ez da hain erraza, aldez aurretik helduok prestatu behar dugu gure jarduera: irakurrita eduki eta ondo eta garbi irakurri.